

# Zorionak eta urte askotarako

Sekuentzia honetan jarduera hauek egin ditzakezu:

- Urtebetetzea ondo pasatzeko gomendioak ordenatu.
- Zure urtebetetzea nola pasatzen duzun kontatu.
- Audioa entzun eta esan esaldi batzuk bat datozen entzundakoarekin.
- Testuko hutsuneak osatu, gaiarekin lotutako hitzak jarritz.



## Gomendioak ordenatzen

Ondorengo audioan ideia batzuk ematen dituzte urtebetetze-eguna primeran pasatzeko. Ordenatuko al dituzu?



### Ordena-zenbakia

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7

### Ideiak

- Plan erromantiko bat bikotekidearekin.
- Lagunekin gaztetako jai bat antolatzea.
- Bidaia bat egitea.
- Puenting edo antzeko zerbait egitea.
- Esperientzia-kaxa bat oparitzea.
- Orduro zure urtebetetzea dela gogoraraztea.
- Eguna pentsatzen pasatzea.

## Egia ala gezurra

Entzun audioa berriro eta esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren.

**Gaur Amaiaren urtebetetzea da.**

- Egia     Gezurra

**Julen Telleriak azken urtebetetzeak etxetik kanpo pasatu ditu.**

- Egia     Gezurra

**Juleni ez zaizkio esperientzia-kaxak gustatzen, baina Amaiari bai.**

- Egia     Gezurra

**Amaiak gustuko du urtebetetzea pentsatzen pasatzea.**

- Egia     Gezurra

**Bukaerako kantak globoak aipatzen ditu.**

- Egia     Gezurra

# Ez da nire eguna

Urtebetetzeei buruz hitz egitean, batzuetan "gaur nire zorionak" dira-eta esaten dugu, eta ez dira zuzenak (informazio gehiago duzu [hemen](#)).

Hemen duzu audioaren hasierako zatia; osatu testua hitz egokiak aukeratuz.

ANTTON TELLERIA. Amaia, gaur zure (1)  da, ezta?

AMAIA. Nire urtebetetzea?!

TALDEAN. Zorionak zuri...

ESATARIA NESKA. Amaia!

AMAIA. Keba!

ANTTON TELLERIA. Zorionak, Amaia, (2)

AMAIA. Benga, ez disimulatu. Badakit pasta batzuk nahi dituzuela, baina gaur ez da (3) . Benga!

ANTTON TELLERIA. A ez! Bueno, norbaiten urteak izango dira, Amaiaren baten urteak izango dira, eta bere eguna taxuz, fundamentuz eta modu berezian (4) , kontseju batzuk emango dizkizuet. **Aukerak**

(1)

urteak

urtebetetzea

zorionak

(2)

urteak e?

urte askotarako

urte gehiago

(3)

urtea

eguna

zoriona

(4)

gustuko

oparitzeko

ospatzeko

## Zuzenketa-orria

# Gomendioak ordenatzen

### Ordena-zenbakia    Ideiak

---

- 1 —————▶ Lagunekin gaztetako jai bat antolatzea.
- 2 —————▶ Bidaia bat egitea.
- 3 —————▶ Plan erromantiko bat bikotekidearekin.
- 4 —————▶ Puenting edo antzeko zerbait egitea.
- 5 —————▶ Esperientzia-kaxa bat oparitzea.
- 6 —————▶ Orduro zure urtebetetzea dela gogoraraztea.
- 7 —————▶ Eguna pentsatzen pasatzea.

## Egia ala gezurra

**Gaur Amaiaren urtebetetzea da.**

✓ Gezurra

**Julen Telleriak azken urtebetetzeak etxetik kanpo pasatu ditu.**

✓ Egia

**Juleni ez zaizkio esperientzia-kaxak gustatzen, baina Amaiari bai.**

✓ Egia

**Amaiak gustuko du urtebetetzea pentsatzen pasatzea.**

✓ Gezurra

**Bukaerako kantak globoak aipatzen ditu.**

✓ Gezurra

## Ez da nire eguna

ANTTON TELLERIA. Amaia, gaur zure (urtebetetzea) da, ezta?

AMAIA. Nire urtebetetzea?!

TALDEAN. Zorionak zuri...

ESATARIA NESKA. Amaia!

AMAIA. Keba!

ANTTON TELLERIA. Zorionak, Amaia, (urte askotarako)

AMAIA. Benga, ez disimulatu. Badakit pasta batzuk nahi dituzuela, baina gaur ez da (eguna).

Benga!

ANTTON TELLERIA. A ez! Bueno, norbaiten urteak izango dira, Amaiaren baten urteak izango dira, eta bere eguna taxuz, fundamentuz eta modu berezian (ospatzeko), kontseju batzuk emango dizkizuet.

## Transkripzioa

ANTTON TELLERIA. Amaia, gaur zure urtebetetzea da, ezta?

AMAIA. Nire urtebetetzea?!

TALDEAN. Zorionak zuri...

ESATARIA NESKA. Amaia!

AMAIA. Keba!

ANTTON TELLERIA. Zorionak, Amaia, urte askotarako.

AMAIA. Benga, ez disimulatu. Badakit pasta batzuk nahi dituzuela, baina gaur ez da eguna. Benga!

ANTTON TELLERIA. A ez! Bueno, norbaiten urteak izango dira, Amaia baten urteak izango dira, eta bere eguna taxuz, fundamentuz eta modu berezian ospatzeko, kontseju batzuk emango dizkizuet.

ESATARIA MUTILA. Bale!

ANTTON TELLERIA. Ideia bat da lagunekin festa bat egitea. Klasiko bat da, baina bueno betiere oso polita geratzen dena.

Nik nobedade modura, halere, proposatuko nizueke egitea remember bat.

ESATARIA NESKA. Lagunekin bai, baina remember bat.

ANTTON TELLERIA. 30 urte bete dituzula ospatzeko, egin 10 urteko garai horietako merendolak.

AMAIA. Ai ze onak! Sandwichak,

ANTTON TELLERIA. Txorizo pamplona boiloak, Nocilla boiloak...

ESATARIA MUTILA. Medialunak.

ANTTON TELLERIA. Beste proposamen bat da bidaia berezitzo bat egitea. Horrela zure egun hori lekuren batekin...

AMAIA. Lotuko duzu.

ANTTON TELLERIA. Lotuko duzu. Nik, adibidez, nire azken bi urtebetetzeak kanpoan pasa ditut. Beste plan bat izan liteke, nik oraindik asko praktikatu ez dudana, l'amour, horrela erromantikoa. Ba zure bikotearekin juntatu eta jan tarta kutxarila batekin bakarrik. Beste plan bat paraxutean salto egin...

AMAIA. Esperientzia bat bizi, ezta?

ANTTON TELLERIA. Puenting...

AMAIA. Ezkondu edo...

ANTTON TELLERIA. -ing bukatzen den guztia egin. Esperientziak oparitzearena ere oso modan dago. Esperientziak oparitu.

Ez dizut ezer materialik oparituko. Oparituko dizut kaxa puta bat.

AMAIA. Nik horiek gustuko ditut, horiek gustuko ditut.

ESATARIA NESKA. Nik ere.

ANTTON TELLERIA. Amaia, hori gustagarria da baldin eta zu tipo edo tipa formala eta antolatua bazara. Aldiz, zure asteburuak nahiko okupatuta eta fundamendu handirik gabe baldin badauzkazu, opari hori da...

ESATARIA NESKA. Bi urteko marjina daukazu.

ANTTON TELLERIA. Alukeria bat! Orduro zure urtebetetzea ospatzea. Hau da, 10ak, e zorionak, Amaia, benga. ( )

AMAIA. Niri hori gustatzen zait, baita ere.

ANTTON TELLERIA. Orduan, programatu eguna horrela. Eta bukatzeko, beste aukera bat –hau, igual, oso tentagarria ez zaizu egingo–, baina da zure eguna hausnartzen pasatzea: “Gaur 30 urte bete ditut. Zein naiz? Nora noa?”

AMAIA. Brrrrrr!

ANTTON TELLERIA. Nondik nator?

AMAIA. Brrrrrr! Hori egin dezakezu 22 urte egiten dituzunean, baina hortik gora!

ANTTON TELLERIA. Eta zure urtebetetzea behar bezala ospatzeko, jarriozu zure urtebetetze-egunari... Kaxiano.

ESATARIA MUTILA. O, ez dadila falta hori.

TALDEAN:

Zorionak,  
zure urtebetetzean  
zorionak  
(e)ta urte askotarako  
zorionak  
belarritik tiratzean  
zorionak  
ta musu bat  
zuretzako